## Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea

IRAGARKIA

Mancomunidad de Servicios del Txorierri-Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateko industrialde, enpresagune eta parke teknologikoetan hondakinen bilketa-zerbitzua arautzeko ordenantza onesteko akordioa jendaurrean egoteko epea igaro ondoren, alegaziorik aurkeztu barik; honenbestez, akordioa behin-betiko onetsita dagoela ulertzen da, eta, jarraian, ordenantzaren testu osoa argitaratzen da.

Derion, 2007ko irailaren 20an.—Mankomunitate-burua

### INDUSTRIALDE, ENPRESAGUNE ETA PARKE TEKNOLOGIKOETAN HONDAKINEN BILKETA-ZERBITZUA ARAUTZEKO ORDENANTZA

I. ATALA

ZERBITZUEN BALDINTZA OROKORRAK ETA EREMUA

**1. artikulua.—*Zerbitzuaren xedea***

1. Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatearen lurralde-eremuan dauden industrialde, enpresagune eta parke teknologikoetako enpresa eta industrietan hiri hondakinekin (HH) asimilagarriak diren hondakinak biltzeko zerbitzua emango da. Ordenantza honen xedea Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateak zerbitzu hori zein baldintzatan emango duen eta erabiltzaileak nola erabiliko duen arautzea da, beti ere hondakin solidoen eskumenak eskualdatu baldin badira.

2. Zerbitzuaren erabiltzaile kategoria izango dute industrialde edo enpresaguneko komertzio-, industria- edo zerbitzu-establezimendu guztiek. Erabiltzaile hauek indarrean dauden xedapenekin eta ordenantza honekin bat etorriz erabiliko dute zerbitzua.

**2. artikulua.—*Hiri-hondakinen eta hondakin asimilagarrien definizioa***

Hiri-hondakinak edo udal-hondakinak honako hauek dira: etxebizitza partikularretan sortutako hondakinak, denda, bulego eta zerbitzuetan sortutakoak, baita arriskutsutzat sailkatu ez direnak ere, baina izaera edo konposizioa kontuan hartuta lehen aipatu ditugun lekuetan edo jardueretan sortzen diren hondakinekin asimilagarriak direnak.

**3. artikulua.—*Salbuespenak***

Hondakin mankomunatuak biltzeko zerbitzuak ez ditu jasoko ondorengo ezaugarriak dituzten hondakinak:

1. Bere industria jardueraren ondorioz enpresak sorturiko hondakinak.

2. Une bakoitzean indarrean dagoen ingurumen legedian «toxiko edota arriskutsu» gisa tipifikatutako hondakinak. Hala nola, pinturak, tindagaiak, erretxinak, kolak, disolbatzaileak, produktu kimikoak, pestizidak, hodi fluoreszenteak, lanparak, pilak, bateriak, erabilitako olioak (etxeko olio begetala izan ezik), likido hidraulikoak, osasun- eta albaitaritza-zerbitzuetakoak edo ikerketako hondakinak (I. eranskina).

3. Era berean, bilketa zerbitzuak ez ditu onartuko %65etik gorako hezetasuna daukaten hondakinak.

4. Bere ezaugarri bereziengatik, garraiatzea, biltzea, baloratzea edo ezabatzea eragotziko duen hondakina edo bilketa zailtzen duena. Honelakoetan Mankomunitateak behartu dezake hondakinaren ekoizlea edo edukitzailea, hondakin horiek bildu aurretik ahal den neurrian ezaugarri berezi horiek kentzera edo murriztera, edo bestela hondakin horiek modu eta leku egokian uztera. Gainera, behar bezala justifikatuta, hondakinaren edukitzailea behartu dezake hondakin hori bere kontura kudeatzera.

5. Hondakin solido bizigabeak (eskonbroak).

## Mancomunidad de Servicios del Txorierri

ANUNCIO

Una vez transcurrido el plazo de exposición pública del acuerdo de aprobación inicial de la Ordenanza reguladora del servicio de recogida de residuos en polígonos industriales, empresariales y parques tecnológicos sin que se hayan presentado alegaciones, el acuerdo se entiende definitivamente aprobado y se procede a la publicación del texto íntegro de la Ordenanza.

En Derio, a 20 de septiembre de 2007.—El Presidente

### ORDENANZA REGULADORA DEL SERVICIO DE RECOGIDA DE RESIDUOS EN POLÍGONOS INDUSTRIALES, EMPRESARIALES Y PARQUES TECNOLÓGICOS

SECCIÓN I

CONDICIONES GENERALES Y ÁMBITO DE PRESTACIÓN DE LOS SERVICIOS

**Artículo 1.—*Objeto del servicio***

1. Es objeto de la presente ordenanza, la regulación de las condiciones en que la Mancomunidad de Servicios del Txorierri prestará y el usuario utilizará, los servicios destinados a la recogida de residuos sólidos asimilables a urbanos (RSU) generados en empresas e industrias ubicadas en polígonos industriales, empresariales y parques tecnológicos del ámbito territorial de la Mancomunidad de Servicios del Txorierri en relación con los cuales le hayan sido transferidas las competencias de residuos sólidos.

2. Tienen la categoría de usuarios a los efectos de la prestación del servicio, todos los establecimientos comerciales, industriales o de servicio del polígono, quienes lo utilizarán de acuerdo con las disposiciones vigentes y con la presente ordenanza.

**Artículo 2.—*Definición de residuos sólidos urbanos y asimilables***

Serán residuos sólidos urbanos o municipales los generados en los domicilios particulares, comercios, oficinas y servicios, así como todos aquellos que no tengan la calificación de peligrosos y que por su naturaleza o composición puedan asimilarse a los producidos en los anteriores lugares o actividades.

**Artículo 3.—*Exclusiones***

No serán admisibles en el servicio de recogida de residuos mancomunados los residuos que presenten las siguientes características:

1. Aquellos residuos generados por la empresa como consecuencia de su actividad industrial.

2. Aquellos residuos que estén tipificados como «tóxicos y/o peligrosos» en la legislación medioambiental vigente en cada momento, tales como pinturas, tintes, resinas, pegamentos, disolventes, productos químicos, pesticidas, tubos fluorescentes, lámparas, pilas, baterías, aceites usados, (excepto aceite doméstico vegetal), líquidos hidráulicos, los residuos de servicios médicos o veterinarios o de investigación (Anexo I).

3. Tampoco serán admisibles en el servicio de recogida, los residuos que se presenten con una humedad superior al 65%.

4. Los residuos que, por características especiales puedan producir trastornos en el transporte, recogida, valorización o eliminación o que dificulten su recogida. En este caso, la Mancomunidad podrá obligar al productor o poseedor de los mismos a que, previamente a su recogida adopte las medidas necesarias para eliminar o reducir, en la medida de lo posible, dichas características o que los deposite en la forma y lugar adecuados. Además, por motivos justificados, podrá obligar a los poseedores a gestionarlos por sí mismos.

5. Los residuos sólidos inertes (escombros).

**4. artikulua.—*Derrigorrez erabili eta hartzea***

1. Hondakinak biltzeko zerbitzuak interes sanitario eta ingurumenekoak ditu, beraz derrigorrezkoa da zerbitzu hori erabiltzea eta hartzea. Hori dela eta, industrialde, enpresagune edo parke teknologiko batean zerbitzu hau eskaintzen bada, bertan dauden establezimendu edo lokaletako titular, errentari edo jabeek derrigorrez alta eman beharko dute zerbitzu honetan.

2. Hiri-hondakinak edo hondakin asimilagarriak dituztenek Mankomunitateari eman behar dizkiote derrigorrez, ordenantza honek zehazten dituen baldintzetan, honek birziklatu, baloratu edo ezaba ditzan.

**5. artikulua.—*Hondakinak abandonatzea***

1. Debekatuta dago hondakinak eta horien kudeaketa zailduko duen edonolako nahasketa edo disoluzio abandonatzea edo kontrolik gabe isuri edo ezabatzea. Erabiltzaileak behartuta daude hondakin eta nahasketa horiek Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateak jarritako ordutegi eta baldintzen arabera uztera.

2. Arau-hausleek abandonaturiko hondakinak kendu eta eragindako ingurua garbitu beharko dute, dagozkien zigorrak alde batera utzita.

**6. artikulua.—*Hondakinak manipulatzea***

Debekatuta dago hondakinak lekualdatu edo manipulatzea bilketa-zerbitzu mankomunatuek edo Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateak berariaz baimenduriko langileek izan ezik.

**7. artikulua.—*Bilketaz arduratzen den pertsonala legitimatzea***

Hondakinak biltzen aritzen den pertsonala bakarrik arduratuko da hondakinak jaso eta eramateaz. Hondakin horiek beste edozein pertsona fisiko edo juridikori ematen bazaizkio, horien ondorioz sortutako edozein kalteri biek erantzun beharko diote, jar daitezkeen zigorrak alde batera utzita.

**8. artikulua.—*Hondakinak biltzeko baimena***

1. Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateko zerbitzuak edo zerbitzuek bakarrik dute hiri-hondakinak edo hondakin asimilagarriak jasotzeko ahalmena. Hori dela eta, debekatuta dago beste edozein pertsona fisiko edo juridikok hondakinak biltzea.

2. Aurrez Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatearen baimena jaso dutenek bakarrik izan dute hondakinak jasotzeko aukera. Baimena jaso dutenek agiri bidezko erregistroa osatu beharko dute eta bertan honakoak jasoko dira: kudeatutako hondakinen kopurua, izaera, jatorria, helburua, bilketaren maiztasuna, garraiobidea eta baloratzeko metodoa. Agiri hauek Mankomunitatearen esku jarriko dira, honek eskatzen dituen bakoitzean. Urte natural bakoitzari dagokion informazioa hurrengo bost urtean gorde beharko da.

**9. artikulua.—*Zerbitzua emateagatiko tasa***

Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateak urtero hondakinak biltzeko zerbitzua emateari dagokion tasa ezarriko du, Udalek eskumena Mankomunitateari uzten dioten unetik.

## II. ATALA

## HONDAKINEN BILKETA-ZERBITZUA

**10. artikulua.—*Bilketa-zerbitzua***

Bilketa-zerbitzuak koordinatzeko ondorengo hondakinak hartuko dira kontuan:

1. Hiri-hondakinei asimilagarriak diren hondakin arruntak: ezin daitezke berreskuratu edo baloratu, beraz, ezabatu egiten dira. Jatetxeetan eta jangeletan sortutako hondakin organikoak sartzen dira.

**Artículo 4.—*Uso y recepción obligatoria***

1. Dado el interés sanitario y ambiental del Servicio de recogida de residuos, se declara obligatorio su uso y recepción, por lo que el simple hecho de prestarse el servicio en un polígono industrial, empresarial o parque tecnológico supondrá el alta en el mismo de todos los titulares, arrendatarios o propietarios de los establecimientos o locales que en él existan.

2. Los poseedores de residuos urbanos municipales o asimilables, estarán obligados a entregarlos a la Mancomunidad para su reciclado, valorización o eliminación, en las condiciones en que determine la presente ordenanza.

**Artículo 5.—*Abandono de residuos***

1. Se prohíbe el abandono, vertido o eliminación incontrolada de residuos y toda mezcla o dilución de los mismos que dificulte su gestión, estando obligados los usuarios a depositarlos con arreglo a los horarios y condiciones establecidas por la Mancomunidad de Servicios del Txorierri.

2. Los infractores están obligados a retirar los residuos abandonados y a limpiar el área afectada con independencia de las sanciones que correspondan.

**Artículo 6.—*Manipulación de residuos***

Queda prohibido el trasvase o manipulación de los residuos, a excepción de los servicios de recogida mancomunados o personal expresamente autorizado por la Mancomunidad de Servicios del Txorierri.

**Artículo 7.—*Legitimación del personal encargado de la recogida***

De la recepción y retirada de los residuos únicamente se hará cargo el personal dedicado a la recogida de los mismos. Quien entregue dichos residuos a cualquier otra persona física o jurídica deberá responder solidariamente con ésta por cualquier perjuicio que se genere a causa de aquéllos, independientemente de las sanciones a que hubiere lugar.

**Artículo 8.—*Autorizaciones de recogida***

1. Solamente está facultado para realizar la recogida de residuos sólidos asimilables a urbanos el servicio o los servicios de la Mancomunidad de Servicios del Txorierri. Consiguientemente queda prohibido que cualquier otra persona, física o jurídica, realice operaciones de recogida de residuos.

2. Únicamente podrán realizar labores de recogida de residuos quienes hayan obtenido una autorización previa de la Mancomunidad de Servicios del Txorierri. Estos deberán llevar un registro documental en el que figuren la cantidad, naturaleza, origen, destino, frecuencia de recogida, medio de transporte y método de valorización de los residuos gestionados. Esta documentación estará a disposición de la Mancomunidad a petición de la misma. La documentación referida a cada año natural deberá mantenerse durante los cinco años siguientes.

**Artículo 9.—*Tasa por la prestación del servicio***

La Mancomunidad de Servicios del Txorierri establecerá anualmente, desde el momento en que los Ayuntamientos cedan la competencia a la Mancomunidad, la tasa correspondiente a la prestación del servicio de recogida de residuos.

## SECCIÓN II

## DEL SERVICIO DE RECOGIDA DE RESIDUOS

**Artículo 10.—*Servicio de recogida***

Al objeto de estructurar los servicios de recogida se contemplarán actuaciones hacia los:

1. Residuos ordinarios asimilables a urbanos sin posibilidad de recuperación o valorización y cuyo destino sea la eliminación. Se incluyen los residuos orgánicos generados en restaurantes y comedores.

2. Beren konposizio edo ezaugarriengatik tratatu ondoren birziklapenaren bidez berreskuratu, berrerabili edo balioa har dezaketen hondakinak; hala nola, papera, kartoia, palet, plastiko e.a. Bilketa hau beste zenbait materialetara zabaldu ahal izango da teknikak horiek berreskuratzeko aukera ematen duenean. Zerbitzua beste material batzuetara zabaltzeko erabakia hartzea Mankomunitateko Batzordeari dagokio.

3. Beren ezaugarriengatik tratamendu berezia behar duten hondakinak. Horrelakoetan Mankomunitateak bilketa bereziak sustatu eta koordinatuko ditu Eusko Jaurlaritzak baimendutako kudeatzaileen bitartez.

### III. ATALA

### HIRI-HONDAKINEI ASIMILAGARRIAK DIREN HONDAKINEN BILKETA-ZERBITZUA

**11. artikulua.—*Hiri-hondakinei asimilagarriak diren hondakinen bilketa-zerbitzua***

Honako hondakinak biltzeko zerbitzua ondorengo zehaztapenekin bat etorriz egingo da:

1. Beren ezaugarriengatik berreskuratu ezin daitezkeen hondakin asimilagarriak: ezin dira berrerabili, birziklatu edo berriz baloratu.

2. Hondakinak Mankomunitateak edo bilketa-zerbitzuak onetsitako edukiontzietan botako dira derrigorrez behar bezala identifikatu ahal izateko.

3. Edukiontzi horiek establezimendu edo lokalaren barneko aldean egongo dira eta erabiltzaileak hondakinak bildu baino lehen bakarrik aterako ditu bide publikora. Dena dela, zerbitzua erabiltzen dutenek kontuan izango dute bai edukiontzia bai barruko edukia beren ardurapekoak direla. Beraz, bilketa-zerbitzua ez da arduratuko edukiontzietatik kanpo edo inguruan egon daitezkeen hondakinez. Edukiontzietan botarako edukia hondakinak biltzeko ibilgailuan hustu ondoren, bilketa-zerbitzuak edukiontzi hori erabiltzaileari itzuli beharko dio honek bere instalazioen barneko aldean gordetzeko hurrengo bilketara arte, edo bestela hartu duen leku berean utzi beharko du.

4. Edukiontzi horietan ezin da gaika bilduko diren hondakinak bota (adibidez, papera, kartoia edo baztertutako beste hondakin). Bilketa-zerbitzuak zama ez jasotzea erabaki dezake, edukia zein den ziurtatu ondoren.

5. Edukiontzietan hondakin toxikoak edota arriskutsuak bota direla frogatzen bada, bilketa-zerbitzuko arduradunak hori kontuan hartu eta ez du zama onartuko. Ondoren Mankomunitateko zerbitzu tekniko eta juridikoei jakinaraziko die, hauek dagokion zigor-espedienteari hasiera eman diezaioten.

6. Mankomunitateak edukiontzi bana emango die erabiltzaileei. Erabiltzaileak edukiontzia erabiltzeko orduan artapen eta mantenamendu ona errespetatuko du, edukiontzia higiene eta segurtasun baldintza egokietan egon daitezen, edukiontzia kaltetzen duen edozein jarduera debekatuta dagoelarik.

Erabiltzailea bere erruz, utzikeriaz edo ausarkeriaz edukiontziak izan dezakeen narriaduraren erantzulea izango da.

**12. artikulua.—*Hiri-hondakinei asimilagarriak diren hondakinak biltzeko maiztasuna eta ordutegia***

1. Hondakin hauek (hau da, edukiontzian bildutako eta ezabatzeko helburua duten hondakin guztiak) gutxienez astean bitan bilduko dira. Maiztasun hau aldatu ahal izango da erabiltzaileen benetako beharren arabera, baina horretarako aurrez Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateko Buruak ebatzi behar du. Zerbitzuaren erabiltzaile batek, arrazoi justifikatuak direla eta, Mankomunitateak ebaluatzekoak, hondakinak beste behin biltzea behar badu, Mankomunitateari jakinarazi beharko dio, zerbitzua arrazionalizatzeko.

2. Residuos que por su composición o características puedan ser objeto de tratamiento y posterior recuperación vía reciclado, reutilización o revalorización, como el papel-cartón, palets, plástico, etc). Esta recogida podrá ampliarse a otros materiales en el momento que la técnica posibilite su recuperación. Dicha ampliación será efectiva tras el correspondiente acuerdo de la Junta de la Mancomunidad.

3. Residuos especiales que por sus características precisen de tratamiento específico. En este caso la Mancomunidad promoverá y coordinará las recogidas especiales a través de gestores autorizados por el Gobierno Vasco.

### SECCIÓN III

### DEL SERVICIO DE RECOGIDA DE RESIDUOS ASIMILABLES A URBANOS

**Artículo 11.—*Recogida de residuos asimilables a urbanos***

El servicio de recogida de este tipo de residuos se realizará de acuerdo a las siguientes especificaciones:

1. Recogida de residuos asimilables a urbanos que por sus características no puedan ser recuperados mediante su reutilización, reciclado o revalorización.

2. Los residuos deberán obligatoriamente entregarse introducidos en los contenedores, según modelo normalizado que será aprobado por la Mancomunidad, o por el servicio de recogida al objeto de poder identificarlos debidamente.

3. Estos contenedores estarán en el interior del establecimiento o local, debiendo el usuario sacarlos a la vía pública únicamente con carácter previo a la recogida de residuos. En cualquier caso, tendrán en cuenta los usuarios del servicio que tanto el recipiente como el contenido de éste será responsabilidad suya, por tanto el servicio de recogida no se hará cargo de los residuos que puedan encontrarse en el exterior o alrededores de los contenedores. Una vez vaciada la carga del contenedor en el vehículo de recogida, el servicio estará obligado o bien a entregarlo al usuario, a fin de que éste lo guarde en el interior de sus instalaciones hasta la próxima recogida o bien a dejarlo en el lugar del que lo ha retirado.

4. No se permite el depósito en estos contenedores de residuos que vayan a ser objeto de recogida selectiva como el papel-cartón ni otros residuos excluidos, pudiendo el servicio de recogida rechazar la carga una vez comprobado su contenido.

5. En el caso de que se comprobara que en el contenedor se hayan introducido residuos considerados como tóxicos y/o peligrosos, el responsable del servicio de recogida tomará cuenta de ello rechazando la carga e informando a los Servicios Técnicos y Jurídicos de la Mancomunidad para que éstos inicien el correspondiente expediente sancionador.

6. La Mancomunidad facilitará al usuario un contenedor. El usuario tiene la obligación de utilizar el contenedor respetando su estado de conservación y mantenimiento, para que el mismo permanezca en adecuadas condiciones de higiene y seguridad, quedando prohibida cualquier actuación que deteriore el contenedor.

El usuario será responsable del deterioro que el contenedor pueda sufrir por la culpa, negligencia o imprudencia que les fuera imputable.

**Artículo 12.—*Frecuencia y horario de recogida de residuos asimilables a urbanos***

1. Se establece en un mínimo de dos veces por semana la recogida de este tipo de residuos, esto es, de aquellos residuos recogidos en contenedor y cuyo destino sea su eliminación. Esta frecuencia podrá ser modificada en función de las necesidades reales previa resolución del Presidente de la Mancomunidad de Servicios del Txorierri. En el caso de que algún usuario del servicio precisara por motivos justificados, a evaluar por la Mancomunidad, una recogida adicional, deberá así hacérselo saber a la Mancomunidad al objeto de racionalizar el servicio.

2. Hondakinak biltzeko zerbitzuaren ordutegia, ahal bada, lanorduekin bat etorriko da, honela bilketa, identifikazio eta edukiontziak itzultzeko lanak errazagoak izateko.

IV. ATALA

HONDAKINEN GAIKAKO BILKETA-ZERBITZUA

**13. artikulua.—*Hondakinak gaika biltzea***

Gaika bilduko diren hondakinak, bere birziklapena zaildu edo eragotziko duten gainerako hondakinetatik guztiz bereizita utziko dira.

Paper eta kartoiak Mankomunitateak edo bilketa-zerbitzuak onetsitako edukiontzietan botako dira derrigorrez behar bezala identifikatu ahal izateko.

Paper eta kartoiei dagokienez, erabiltzaileek beren instalazioetan berariazko edukiontzia izan beharko dute, bilketa-zerbitzurako eskuragarria. Kartoizko hondakinak behar bezala tolestuta egongo dira.

Mankomunitateak edukiontzi bana emango die erabiltzaileei. Erabiltzaileak edukiontzia erabiltzeko orduan artapen eta mantenamendu ona errespetatuko du, edukiontzia higiene eta segurtasun baldintza egokietan egon daitezen, edukiontzia kaltetzen duen edozein jarduera debekatuta dagoelarik.

Erabiltzailea bere erruz, utzikeriaz edo ausarkeriaz edukiontziak izan dezakeen narriaduraren erantzulea izango da.

Plastikoen eta paleten bilketan erabiltzaileak ondorengo betebeharrak ditu:

— Aurretik Mankomunitateari jakinaraztea.
— $M^3$ bateko muga hileko eta erabiltzaileko.
— Paletak behar bezala pilatuta egon beharko dira eta plastikoak ahalik eta bolumen gutxien betetzeko eraz jarriko dira, bilketa-zerbitzurako eskuragarria den gune batean.

Hondakinek material desegokiak badituzte eta, bilketa-zerbitzuaren iritziz, hondakin horiek berreskuratzeko arazoak sortzen badituzte, ez dira jasoko.

**14. artikulua.—*Hondakinak gaika biltzeko maiztasuna eta ordutegia***

1. Paper eta kartoizko hondakinen gaikako bilketa gutxienez hamabost egunean behin egingo da. Bildu behar den paper kopurua enpresa baten berariazko jardueraren ondorioz bada, bilketa enpresaren kontura egingo da.

Palet eta plastikoen bilketa astean behin egingo da hurrenez hurren.

Maiztasun alda daitezke Mankomunitatearen iritziz beharrezkoa bada.

2. Hondakinak biltzeko zerbitzuaren ordutegia, ahal bada, lanorduekin bat etorriko da, honela bilketa, identifikazio eta honelako hondakinak botatzeko baldintzak betetzen diren kontrolatzeko lanak errazagoak izateko.

3. Bilketa hau beste zenbait materialetara zabaldu ahal izango da teknikak horiek berreskuratzeko aukera ematen duenean. Zerbitzua beste material batzuetara zabaltzeko erabakia hartzea Mankomunitateko Batzordeari dagokio.

V. ATALA

HONDAKINAK BILTZEKO ZERBITZU BEREZIA

**15. artikulua.—*Norbere kontura egindako bilketa-zerbitzua***

1. Erakunde eskudunek egindako txostenekin bat etorriz, Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatearen iritzirako hondakinek ezaugarri arriskutsuak badituzte edo beren egoera, konposizio edo kopuruagatik biltzea, garraiatzea, baloratzea edo ezabatzea zaila bada,

2. El horario de recogida se adaptará, en la medida de lo posible, al laboral para facilitar las labores de recogida, identificación y devolución de los contenedores a los usuarios.

SECCIÓN IV

DEL SERVICIO DE RECOGIDA SELECTIVA DE RESIDUOS

**Artículo 13.—*Recogida selectiva de residuos***

Los residuos que vayan a ser recogidos de manera selectiva, se depositarán totalmente separados del resto de otros residuos que puedan dificultar o imposibilitar su posterior reciclado.

Los residuos de papel-cartón deberán obligatoriamente entregarse introducidos en los contenedores, según modelo normalizado que será aprobado por la Mancomunidad, o por el servicio de recogida al objeto de poder identificarlos debidamente.

En el caso del papel-cartón, los usuarios deberán disponer estos residuos en sus instalaciones, en un contenedor específico y de fácil acceso para el servicio de recogida. Los residuos de cartón, éstos deben estar debidamente plegados.

La Mancomunidad facilitará al usuario un contenedor. Los usuarios tienen la obligación de utilizar el contenedor respetando su estado de conservación y mantenimiento, para que el mismo permanezca en adecuadas condiciones de higiene y seguridad, quedando prohibida cualquier actuación que deteriore el contenedor.

Los usuarios serán responsables del deterioro que el contenedor pueda sufrir por la culpa, negligencia o imprudencia que les fuera imputable.

La recogida de plásticos y de palets lleva aparejada por parte del usuario las siguientes obligaciones:

— Previo aviso a la Mancomunidad.
— Límite de 1 $m^3$ al mes por usuario.
— Los palets deberán estar debidamente apilados y los plásticos dispuestos de forma que ocupen el menor volumen posible y en una zona de fácil acceso para el servicio de recogida.

En el supuesto de que el residuo contenga materiales impropios que a juicio del servicio de recogida pueda presentar problemas de recuperación, no se realizará la retirada de los mismos.

**Artículo 14.—*Frecuencia y horario de recogida selectiva de residuos***

1. La recogida selectiva de papel-cartón se realizará con una frecuencia mínima de una vez cada quince días. Si la cantidad de papel a recoger se debiera a la actividad específica de dicha empresa la recogida será por cuenta de la empresa.

La recogida de palets y de plásticos se realizará una vez a la semana, respectivamente.

Las frecuencias podrán ser modificadas según necesidad estimada por la Mancomunidad.

2. El horario de recogida se adaptará, en la medida de lo posible, al laboral para facilitar las labores de recogida, identificación y control de cumplimiento de las condiciones de entrega de este tipo de residuos.

3. Esta recogida podrá ampliarse a otros materiales en el momento que la técnica posibilite su recuperación. Esta ampliación será efectiva tras el correspondiente acuerdo de la Junta de la Mancomunidad.

SECCIÓN V

DEL SERVICIO ESPECIAL DE RECOGIDA DE RESIDUOS

**Artículo 15.—*Servicio de recogida por cuenta propia***

1. Cuando la Mancomunidad de Servicios del Txorierri considere que los residuos presentan características que los hagan peligrosos de acuerdo con los informes técnicos emitidos por los organismos competentes, o que dificulten su recogida, transpor-

Mankomunitateak behar dezake horiek bere kontura jasotzera. Kasu honetan, Mankomunitateak ekoizleei bilketa bereziak egiteko baimena duten kudeatzaileen berri emango die, ekoizleek eskatuta.

2. Kasu honetan, ekoizle guztiek edo bilketa bere kontura egiten dutenek beharrezko neurriak hartu behar dituzte hondakinen bolumena ahalik eta gehien murrizteko eta garraioa eta amaierako tratamendua, ordenantza honekin eta indarrean dagoen gainerako araudiarekin bat etorriz egin direla ziurtatzeko. Horiek guztiak segurtasun eta higiene baldintzak beteta egingo dira.

3. Artikulu honetan adierazitako salbuespenaren eragindako kalte-galeren erantzukizuna hondakinen ekoizle eta edukitzailearena bakarrik izango da. Mankomunitateak behar adina ikuskaketa egiteko eskubidea izango du eta hondakinak eramateko orduan edozein aldaketa edo erreforma egiten dadin eska dezake.

te, valorización o eliminación por su situación, composición o cantidad, podrá obligar al productor a retirarlos por sí mismo. En este caso, la Mancomunidad informará a los productores, a solicitud de éstos, de los gestores autorizados para las recogidas especiales.

2. En este supuesto, todos los productores o quienes realicen por cuenta propia la recogida, están obligados a la adopción de cuantas medidas sean necesarias para reducir al máximo el volumen y para asegurar que su transporte y tratamiento final se realice de acuerdo con esta ordenanza y demás normativa vigente, cumpliéndose siempre todos los requisitos de seguridad e higiene.

3. La responsabilidad por daños y perjuicios que pudieran ocasionarse a causa de la exclusión indicada en este artículo será exclusivamente del productor o poseedor de los residuos. La Mancomunidad tendrá la potestad de inspección al respecto, pudiendo exigir cualquier cambio o reforma en el tema de evacuación de los residuos.

## VI. ATALA

## BILKETA-ZERBITZUA EMATEKO ORDUTEGI BEREZIAK

### 16. artikulua.—*Bilketaren maiztasuna eta ordutegia aldatzea*

1. Zerbitzua emateko ordutegi, modu edo maiztasunean edozein aldaketa gertatzen denean, Mankomunitateko zerbitzuek behar den aurrerapenarekin emango dute aldaketa horren berri, larrialdi egoeretan erakunde eskudunak emandako xedapenak izan ezik.

2. Mankomunitateak bilketaren maiztasuna eta ordutegiak alda ditzake, erabiltzaileen intereserako onuragarria dela uste duenean, aldez aurretik Buruak ebazpena eman beharko duela.

3. Bi jaiegun jarraian gertatzen badira, bilketa egun horietako batean egingo da.

4. Larrialdietan edota ezinbesteko kasuetan bilketa zerbitzu arrunta ematea ezinezkoa bada, Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateak jakinarazi ondoren, erabiltzaileek ez dituzte hondakinak aterako zerbitzua normalizatu arte edo Mankomunitateak bidezko jarraibideak eman arte.

5. Horrek ez du inola ere tasak murrizteko eskubiderik sortuko.

## SECCIÓN VI

## HORARIOS ESPECIALES DE PRESTACIÓN DEL SERVICIO DE RECOGIDA

### Artículo 16.—*Modificaciones en frecuencia y horario de recogida*

1. Los servicios de la Mancomunidad harán público con la suficiente antelación cualquier cambio en el horario, forma o frecuencia de prestación del servicio, con excepción de las disposiciones que dicte el órgano competente en situación de emergencia.

2. La Mancomunidad podrá modificar las frecuencias y horarios de recogida cuando lo considere beneficioso para los intereses de los usuarios, previa resolución del Presidente.

3. En el caso de coincidir dos días festivos consecutivos, la recogida se realizará en uno de ellos.

4. En aquellos casos de emergencia o fuerza mayor en los que no sea posible prestar el servicio normal de recogida y previa comunicación de la Mancomunidad de Servicios del Txorierri, los usuarios se abstendrán de depositar sus residuos hasta que se normalice el servicio o hasta que la Mancomunidad dicte las instrucciones oportunas.

5. En ningún caso se generará el derecho a reducción de las tasas.

## VII. ATALA

## HONDAKIN-EKOIZLEEN ERANTZUKIZUNA

### 17. artikulua.—*Erantzukizuna*

1. Hiri-hondakin edo hondakin asimilagarrien edukitzaileek Mankomunitateari eman behar dizkiote, ordenantza honetan zehaztutako baldintzetan, horiek birziklatu, baloratu edo ezabatzeko. Mankomunitatea hondakin horien jabe bihurtuko da, haiek hartutakoan, eta edukitzaileek hortik aurrera ez dute hondakinek eragin ditzaketen kalteen gaineko erantzukizunik izango, beti ere, entregatzerakoan, ordenantza honetan eta aplikatzekoak diren gainerako arauetan xedatutakoak begietsi baldin badira.

2. Hondakinak sortzen dituzten enpresek arduradun-solaskide bat izendatu beharko dute, hondakinen bilketarako une bakoitzean jarduketa egokienak direnak koordinatzeko.

### 18. artikulua.—*Ikuskapena eta zaintza*

1. Hondakin ekoizleek edo edukitzaileek lankidetza osoa eskaini beharko diete Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateko ikuskapen-zerbitzuei, hauek beren azterketak eta kontrolak egin ditzaten, laginak hartu eta informazioa bil dezaten eta bere lana betetzeko beste edozein lan egiteko.

## SECCIÓN VII

## DE LA RESPONSABILIDAD DE LOS PRODUCTORES DE RESIDUOS

### Artículo 17.—*Responsabilidad*

1. Los poseedores de residuos urbanos o asimilables a éstos, estarán obligados a entregarlos a la Mancomunidad, para su reciclado, valorización o eliminación en las condiciones determinadas en la presente ordenanza. La Mancomunidad adquirirá la propiedad de dichos residuos desde su entrega y los poseedores quedarán exentos de responsabilidad por los daños que puedan causar tales residuos, siempre que en su entrega se hayan observado esta ordenanza y demás normativa aplicable.

2. Las empresas productoras de residuos deberán nombrar un responsable que a su vez sea el interlocutor con el fin de coordinar las acciones que en su momento se consideren más adecuadas a las diferentes recogidas de residuos.

### Artículo 18.—*Inspección y vigilancia*

1. Los productores o poseedores de residuos estarán obligados a prestar toda la colaboración a los servicios de inspección de la Mancomunidad de Servicios del Txorierri a fin de permitirles realizar los exámenes, controles, toma de muestras y recogida de información y cualquier otra operación para el cumplimiento de su misión.

2. Ikuskapen lanak egiten dituzten pertsonak agintaritzaren agenteak izango dira eta hauek egiaztatutako eta aktaren bitartez formalizatutako gertakariek froga ondorioetarako ziurtasunezko presuntzioa izango dute.

VIII. ATALA

ARAU-HAUSTEEN ETA ZEHAPENEN ERREGIMENA

**19. artikulua.—*Arau-hausteen eta zehapenen erregimena***

